

## IRABAZI-ITURRIAK

Gure irabazi-iturriak ez dira finkoak izango, izan ere, enpresa bakoitzak ematen digunaren arabera izango dira. Ematen diguten kantitatearen %10a guretzat izango da, bestea langileei ordainduko diegu; adibidez, enpresa batek 1200€ ematen badizkigu, gu 120€-rekin geratuko gara, eta bestea langileari egongo da zuzendua. Horrez gain, gurekin kontratu bat duten enpresek gure web orrian haien publizitatea jartzeagatik ordaindu beharko digute. Gure webgunean izena ematea dohainik izango da.

Hasieran gure irabazi iturriak ez dira oso handiak izango, azken finean bezero kopurua hasieran txikiagoa izango da; gainera, gure iragarkiak telebistan agertzeko, alokairua lortzeko eta gainerako gastuak ordaindu beharko ditugu, horrek esan nahi du hasieran enpresaren partaide guztiek diru kopuru handi bat jarri beharko dugula guztia ordaindu ahal izateko.

Langileren batek lana utzi nahiko balu nahiz eta ezer larria ez gertatu, (baja hartu, istripuren bat izan, enpresak kaleratu egin du...) lan egin duen ordu kopurua bakarrik ordainduko diogu, eta beste guztia enpresarentzat izango da; adibidez, langile batek hilabete batean 960€ kobratu behar baditu, eta bakarrik 3 egunez lan egiten badu, 3 egun horiei dagokion diru kopurua bakarrik ordainduko diegu.



Gure enpresa aurrera eramateko taldekide bakoitzak 1000€ jarriko ditu, ondoren 30.000€-ko mailegua eskatuko genioke banku bati eta lortzen ditugun irabaziekin ordainduko genuke utzi diguten diru kantitatea.

Gure web orrialdean gurekin kontratu bat irekitzen duten enpresen iragarkiak jarriko ditugu eta haiek ordaindu egingo digute (100€ gutxi gorabehera).

Ezin dugu jakin urtean irabaziko dugun diru kantitatea, izan ere, lortuko duguna enpresak ematen digunaren kopuruaren arabera izango da. Horrez gain, ez dakigu zehazki zenbat diru gastatu beharko dugun urte batean, baina alokairua, lokalerako wifia, argia, etb. izango dira ordaindu beharko ditugunak.

Adibidez: 18 urteko pertsona bat udarako lan baten bila etorri da. Guk haren kalitateak eta tituluak eskatuko dizkiogu, horrela, harentzat lanpostu egoki bat bilatzen saiatuko gara. Horrela, eman dizkiogun aukeretatik gustuko duen lana aukeratuko du.